



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2022KO MAIATZAREN 13AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2022ko maiatzaren 13an, arratsaldeko 17:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ez ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Santos Etxegia, Julen Beunza, Ricardo Arangoa.

BERTARATU EZ DIRENAK: Xabier Azpiroz, M^a Mar Ansorena eta Olatz Dorai.

17:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aizarotz kontzeju eratzeko prozeduraren inguruko erabakia.

Alkateak azaltzen du Aizarotz kontzeju izateko hasitako prozedurak ez zuela baiezko txostenik eta udalak ezin du dokumentazio gehigarria aurkeztu baiezko txostenak izan ahal izateko. Horregatik araubide juridikoa jarraituz egokiena da prozedura ixteko erabakia hartzea ondoren berria ireki ahal izateko.

Nafar Gobernuak eskatzen dituen txosten tekniko eta ekonomikoak egiteko aholkularitza bati egingo zaio eskaera.

Hortaz alkatearen proposamena prozedurari itxiera ematea, ondorengo batzarrean hasiera emateko erabakia hartzeko eta beharrezkoak diren txostenak aurkezteko enkargua egin.

Horregatik guztiagatik bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 43.1.6 artikuluan ezarritakoa jarraituz, Aizarotz kontzeju eratzeko akordioa, dagokion administrazio-espeditiarekin batera, Nafarroako Gobernuari bidali zitzaion, Lurralde Mugaketaren Batzordeak aldeko txostena eman ondoren, kontzeju berria eratzearabaki zezan.

Bidalketa egin zenetik denbora igaro denez, administrazio-espeditia iraungi egingo dela aurreikusten denez, eta Lurralde Mugaketaren Batzordearen aldeko txostena oraindik onartu ez denez, Aizarotzko Kontzejua sortzeko prozeduran atzera egitea erabaki behar du Basaburuko Udaleko Osoko Bilkurak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 94. artikuluan xedatutakoaren babesean.

Horregatik guztiagatik, Basaburuko Udalaren Osoko Bilkurak erabaki du

Lehenengoa.- 2019ko otsailaren 28an, Basaburuko Udaleko osoko bilkuraren erabakiaren bidez onartutako Aizarotzeko Kontzejua sortzeko prozeduran atzera egitea, etorkizunean ildo bereko beste bati ekiteko aukera alde batera utzi gabe.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentuari jakinaraztea, bidezkoak diren ondorioetarako, Basaburuako Udala Aizarotzeko Kontzejuaren sorrerari buruz Toki Administrazioko Zuzendaritza Nagusian hasitako administrazio-prozeduran atzera egin duelakoan izan dezan, aipatu maiatzaren 13ako ez ohiko osoko bilkuran hartutako erabakian oinarrituta.

2. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 17:45 ak direnean bilera amaitu zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.